

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO
GRADUDUN TITULURAKO PROBA LIBREAK**

Gizarte Zientzien esparrua

DATU PERTSONALAK

Deiturak..... Izena.....

NANa.....

Helbidea:

Kalea/plaza.....zk.....PK.....

Herria..... Probintzia..... Telefonoa.....

Deialdia: 2012ko maiatza



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

BOST GALDERA AUKERATU ITZAZU ONDOKO ZAZPIETATIK:

(Puntu 1 bakoitzeko)

1. Azaldu zer den merkatu-ekonomia eta nola funtzionatzen duen Eskaintza-eskarien Legeak.
2. Baliabide begetalen ustiapena: nekazaritza eta nekazaritza motak.
3. Arrantza. Arrantza motak.
4. Energia iturriak: berriztagarriak eta ez-berriztagarriak.
5. Hirugarren sektoreko jarduerak: garraioideak.
6. Europar Batasunaren sorrera prozesua: hurrenez hurren izan dituen zabalkuntzak.
7. Mapa osatu, autonomia erkidegoen izenak (letra larriz) eta horien hiriburuak (letra xehez) dagokien tokian paratuz.



BOST GALDERA AUKERATU ITZAZU ONDOKO ZAZPIETATIK:

(Puntu 1 bakoitzeko)

8. Nolakoa zen **Antzinako Erregimeneko** gizarte estamentala? Noiz desagertu zen gizartearen antolamendu mota hori?
9. **Frantziako Iraultza** kronologikoki kokatu. Zein talde sozial izan ziren iraultza horren protagonista? Zer ondorio izan zituen?
10. **1812ko Espainiako Konstituzioa**. Zein egoeratan zegoen Espainia une hartan?
11. **Industria-iraultzan**, funtsean, zer gertatu zen? Noiz eta non gertatu zen hasieran? Aipatu elementu nagusiak.
12. Zer da **kolonialismoa**? Noiz eman zen Europan? Zer ondorio izan zituen Europako herrialdeen arteko harremanetan?
13. Azaldu **II. Mundu Gerraren** zergatiak eta kronologikoki kokatu ezazu. Zein herrialde borrokatu ziren gudu hartan?
14. **1931**: Espainiako **II. Errepublikaren** aldarrikapena. Labur azaldu gertakari horren zergatiak, garapena eta ekarri zituen ondorioak.

GIZARTE ZIENTZIEN ESPARRUKO PUNTUAZIOA, OSOTARA: 10 PUNTU